

Altzai-Altzabeheti-Zunharreta



Aurkibidea

Udalerria: Altzai-Altzabeheti-Zunharreta

Sarrera



Altzai, Altzabeheti eta Zunharreta herriek osatzen duten Zuberoako udalerria. Atarratzetik hurbil, Basaburüa eskualdean. Udalerriko ekonomia laborantzan eta abeltzantzan oinarritzen da.

Argazkia: Wikimedia, [Havang](#)

- **Biztanleak:** 231
- **Euskaldunak:** %72,53

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **7**
- Pasarteak: **12**
- Transkribatutakoak: **0**
- Audioak: **0**
- Bideoak: **12**

Proiektuak

- Agustin Mendizabalen fondoa
- Alex Artzelus Mujika
- Euskal Herriko Ahotsak

Hizlariak

Beñat Aranburu *Arhantxet* (1934)



Altzain jaioa 1934an. Gerora Altzürükün bizi izan da. Marinela, baserritarra eta artzaina izana. Kantuan asko ibilia; diskoak ere atera izan ditu. Elkarrizketan Maddi Oihenart du aldamenean.

Pierra Casanave (1940)



Pierre Edouard Bordalej etxean sortu zen. Aita Bearnoan sortu zen, Tabaille Usquain herrian, eta 12 urte zituela Zünharretara etorri zen bizitzera, Bordalej etxera mitil bezala. Etxe horretan bizi zen bikoteak haurrik ez zuenez, hark segida hartuko zuen. Pierraren ama Gracieuse Aguer zen, Aozeko Elixaborde etxekoa. Laborari etxea amak joanarazten zuen eta aita zurgina zen. Bost haur izan zituzten, hiru alaba eta bi seme. Pierra Atherei herrian ezkondu zen, Maddalen Olalaintirekin (Aguer etxekoa). Maddalenek bere amarekin (Maite) laborari etxea joanarazten zuen, eta Pierra zurgin ari zen bere kondu. Maddalenen aita hargina zen. Ezkondu baino lehen, Pierrak leku ezberdinetan egin zuen lan: Paue, Mourenx, Parise. Zurgin lana zer zen, eta nola aldatu den urteetan zehar esplikatzeko digu. Soldaduxka Senegalen egin zuen.

Allande Etxart (1950)



Altzain jaio zen eta Bildozen bizi zen elkarrizketa egin aurreko hogeita hamar urteetan. Egun berean elkarrizketatu zen [Margarita Etxarten](#) senarra.



Margarita Etxart (1951)

Altzabehetin jaio zen eta Bildozen bizitakoa. Zuberoako lehen ikastola andereñoa. Duela gutxi hartu du erretreta. Egun berean elkarrizketatutako [Allande Etxart](#)en emaztea.

Maiteja Recalt (1923)

Maite Iratçabal sortzez, Gütütxia etxean jaioa, Altzabeheti herrian. 10 anai arrebatan zortzigarrena, aita eta ama laborariak ziren (ama, Iribarne sortzez, etxondokoa eta aita Altzaikoa). 14 urte arte eskolan ebili zen. Ez zuen gustukoa eta amaren laguntzen egon zen ondotik. 20 bat urte inguru betetzen zutelarik, etxeko haurrak etxetik kanpo joan ziren lan egitera. Maite 1944-1948 urte artean Parisen egon zen, familia aberats batendako lanean lehenik, ostatu batean lanean ondotik. Bi ahizpa eta anai bat hara joan ziren ere. Maiteren bi anaiek bigarren gerlan parte hartu zuten. Anai zaharrenak etxondoaren segida hartu zuen. Emaztea gazterik galdu zuen, eta orduan Maite sartu zen etxera, laguntzera, 1948an. Pette Recaltekin ezkondu zen Maite, eta lau haur ukan zituzten elgarrekin. Hainbat tokitan bizi izan ziren: Altzabehetin lehenik, Landesetan eta Gironde eskualdean segidan, eta ondotik Altzabehetira itzuli ziren, baina Petteren sortetxera; Pettek kabalekin lan egin zuen hasieran, eta gero espartina fabrikari hasi zen.



Aña Mari Urruty Aguer (1912)

Aña Mariren aita Joseph Urruty zen, Altzai herriko legaia etxekoa. Ama etxe auzokoa zen, Graxiusa Jeta, Nekezauria etxekoa. Lau anai-arreba ziren. Xengrat izeneko mutila zaharrena, eta ondotik hiru neska: Maiana, Aña Mari eta Brigida. Aita Lehen Mundu Gerran zendu zen, beraiek ttipi zirela. Etxondoa ethezain batzuei utzi, eta familia Atharratzera joan zen urte zonbaitez bizitzera; Bambaenia etxera, aitañi eta amañirengana. Haurrek eskolara joateko adina zutelarik, Altzaira itzuli ziren, etxondotik hurbil zen etxe txiki batera. Ikasketak amaitzean, etxondora joan ziren laborari. Xengratek hartu zuen legaiaren segida. Aña Mari 24 urtetan ezkondu zen, Pierre Aguer "Gat"ekin, Arhan herriko Gat etxera. Senarra atabalari oso ona zen, eta Xiberoko besta ainitzetan ibili da musikan.



Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Altzain jaio eta Bildozen bizi (AAZ-001/001)

Altzain jaio, baina Bildozen bizi da azken hogeita hamar urtez. Margerita emaztea Altzabehetikoa du, eskolan ezagutu zuten elkar. Lau anai-arrebatatik azkena. Xaho sorturiko gaztelua dago Altzain.

2. Apaiz euskalzale baten eragina (AAZ-001/003)

Altzain eskola publikoa eta pribatua ziren. Berak pribatuan ikasi zuen. Zortea izan zuten bazelako irakasle apaiz euskaltzale bat neskenegunez (larunbatez) kantuan, antzerkia egiten eta abar erakusten ziena. Emaztearen anaia pastoralen errejenta da. Denek maite zuten euskara Altzain.

3. Zuberoako produktuen denda Maulen (AAZ-001/004)

Zortzi lan ezberdin egin ditu. Lehen lana, elektronika irakasle Hazparnen. Afrikan egon zen soldadu bi urtez, Nigerren. Berriketari (kazetari?) ere ibilia da Baionako elkarte batentzat. Azken lana, denda bat izan zuen Maulen Zuberoako produktuak saltzeko. Duela sei hilabete hartu du erretreta.

4. Itzulpenak eta interprete lanak (AAZ-001/005)

Urtebete lasai hartu nahi du, irakurri, Interneten ibili... Itzulpenak egiten ditu eta batutik zuberotarrerako egokipenak ere bai. Aldi bereko interpretari lanak ere egiten ditu.

5. Zuberoan "Euskaraz Bai" ekimena (AAZ-001/006)

"Euskaraz bai" ekimena abian jarri zen Zuberoan, hegoaldeko "Bai euskarari"ren parekoa da. 30 saltegi sinatu zuten akordioa eta pertsona bat dabil hori dinamizatzen. Denda horietako produktuei zuberotarrez izenak ezartzen, eta abar.

6. Aragoi aldeko emigrazioa handia Maule inguruan (AAZ-001/007)

Aragoi aldetiko emigrazio handia jaso du Maulek azken mendean. Espartin lantegietara etorri ziren. Maulek bere biztanleria bikoiztu zuen denbora gutxian. Jende horrek ez du euskararik ikasi

7. Euskal giroa suspertzen (AAZ-001/008)

Lehenago bazen euskararen kontra ozenki mintzatzen zen jendea. Orain ez. Ikastolaz gain, bada Zuberoan Herri Elkargoa (mankomunitatea), eta euskara teknikaria du. Saltegieta hainbat afitxa eramaten da euskaraz eta frantsesez, doan, eta ondo hartuak izaten dira. Herriko festetako karteekin eta abar jarraitu nahi dute. Zubietakoekin batera besta bat egin dute aurten.

8. Euskararen egoera txarra Zuberoan (AAZ-002/002)

Euskara suspertu nahi dute leku publiko guztietan elebiz egon daitezen gutxienez idatziak. Zuberoan euskarak ez du ez lurralderik ez inolako aitorpenik. Kontzientzia aldaketa baldin bada egoera ere aldatzen ahalko da, naski. Lege aldetik babestua behar luke euskarak, baina lurralde bat izatea ere premiazkoa da.

9. Euskaldun kopurua behera (AAZ-002/003)

Orain dela urte batzuk %60-70 ziren euskaldun, baina kopuru hori behera doa. Gaur egun Bada gazte euskaldun gehiago Maulen Santa Grazin baino. Arrazoi ugari daude transmisioa haustea azaltzen dutenak, tartean Zuberoako populazioa bera ere jaistea.

10. Ikastolaren lehen urratsak Zuberoan (AAZ-002/005)

1979an sortu zen Seaskako ikastola mugimendua. Momentu hartan irakasle izatea proposatu zioten eta onartu egin zuen. Maulen hasi ziren herriko etxeak utzi gela batean 12 ikaslerekin. Beraiek egiten zuten materiala zubereraz. Auzapeza alde izan zuten hasiera hartan, baina lehen maila ezarri zutelarik hasi ziren arazoak. Sohütako ikastola 1996an eraiki zuten gurasoek sos laguntzarik Gabe. Gaur egunean 100 haur baino gehiago dabilta.

11. Euskal Irratiak (AAZ-002/006)

Zuberoan beste irrati batek egiten die konkurrentzia baina iparraldeko euskal irratiek badute entzulerik! Bakoitzak bere aldera emankizunak egiten ditu, eta gero oroek elkarrekin ere bai.

12. Abertzaletasuna eta euskara (AAZ-002/007)

Bozketan %5 da abertzale, baina badira auzapez euskaldunak. Euskaldun ugari dira baina abertzale gutxi. Gipuzkoako egoera ere ez da perfektua, boto abertzale ugari izanagatik ere, berria egunkaria ez baita ia saldu ere egiten.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-04

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com